



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)

ULTZAMA
UDALA

DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRIAK. IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTE ETA PARTIKULARREK 2018. URTEAN EGINIKO ARTE-, KULTURA- ETA KIROL-JARDUERENDAKO DIRU- LAGUNTZA DEIALDIA.

1. XEDEA.

Deialdiaren helburuak:

- a) Sormen artistikoa eta kulturala diruz laguntzea, zernahi ere den diziplina artistikoa: dantza, musika, antzerkia, arte plastikoak, argazkilaritza, pintura, poesia, ipuinak...
Deialdi honetarako aurrekontua 2.500,00 eurokoa da.
- b) Diru-laguntza ematea jarduera fisikoak sortzeko edozein kirol diziplinan.
Deialdi honetarako aurrekontua 2.500,00 eurokoa da.

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira irakaskuntzako jarduerak eta ekipamendua, baita herrietako zaindariaren festak eta antzekoak.

Diru-laguntzen zenbatekoa 2018ko gastu aurrekontuko "beste jarduera kultural batzuekiko diru-laguntza" izeneko 3340 4820003 diru-sailaren kargura finantzatu da, 2017ko abenduaren 14an onetsia, eta 5.000,00 euro dituen.

2. ONURADUNEN BETEKIZUNAK.

Deialdi honetako diru-laguntzak jaso ahalko dute:

- .- Irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteek.
- .- 18 urtetik gorako pertsona fisikoek. Laguntza hauen xedeko jarduerak ezin izanen dute irabazi asmorik izan.

Salbuespena: Ezin izanen dute laguntza horiek jaso zuzenean Ultzamako Udalaren diru-laguntzak jasotzen dituzten erakunde edo pertsona fisikoek. Hala ere, baldin eta jasotzen duten diru-laguntza deialdi honetan jasoko luketena baino txikiagoa izanen balitz, deialdi honetako diru-laguntzak jaso ahalko dituzte, emandako diru-laguntza osatu arte.

Entitate/pertsona onuradunek Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 9 eta 13. artikuluetan eta haiekin bat heldu diren ezarritako betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzte.

Diruz laguntzen den gastuagatik beragatik ezin izanen da beste entitate publiko baten diru-laguntzarik jaso; hala bada, bi aldiz jaso den diru-laguntzaren zenbatekoa bueltatu beharko dute.

Eginbidea: Egiten da adierazteko 6 orrialde dituzten Oinarri Arautzaile hauek Ultzamako Udalak onetsi zituela 2018ko maiatzaren 3an eginiko osoko bilkuran. 1

Alkate anderea
M^a. Aránzazu Martínez Urionabarrenechea

Idazkaria.
Alfonso Araujo Guardamino



3. ESKABIDEAK AURKEZTEA.

3.1. Deialdi honetan parte hartu nahi duten entitate, elkarte, kolektibo edo pertsona fisikoek proiektuak 2018ko ekainaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Diru-laguntza jasoko duten proiektuak 2018ko urriaren 30a baino lehen egin beharko dira eta 2018ko abenduaren 15a baino lehen justifikatu beharko dira.

Aurkezpena euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko da.

3.2. Eskaera/k Ultzamako udal erregistro orokorrean aurkeztu behar dira.

3.3. Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu behar dute:

PERTSONA FISIKO EDO PERTSONA FISIKOEN TALDEAK

3.3.1 Eskaeraren arduradunak sinaturiko eskabidea.

Talde baten ordezkari gisa diharduten pertsona fisikoek kasuan, ekimena sustatzen eta/edo laguntzen duten pertsonen zerrenda, Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 8. artikulua 2 eta 3. ataletako edukia kontuan hartuz.

3.3.2. Transferentzia bidezko ordainketaren ziurtagiria, kontu korrontearen zenbakia adierazita (eta haren IBANa), bertara transferentzia egiteko.

3.3.3. Diru-laguntza zein jarduerarako eskatzen den, haren programa zehatza eta aurrekontu xehatua:

Laguntza zein proiekturako eskatzen den, haren azalpen memoria, non adierazten baita proiektua garatzeko justifikazioa, helburuak, jarduerak, aurrekontua, eta non eta noiz egin behar den.

3.3.4. NANaren kopia konpultsatua.

3.3.5. Eskatu edo jaso diren beste diru-laguntza publikoei buruzko zinpeko aitortpena. Baiezkia izanez gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea ukatuko zaio, baldin eta deialdi honetan eskatzen den diru-laguntzaren xedeko proiektuaren beste gastu batzuei aurre egiteko erabiltzen ez bada behintzat, eta, hala bada, pertsona/entitate eskatzaileak demostratu beharko du horrela dela.

ENTITATEAK, ELKARTEAK, FUNDAZIOAK, KOLEKTIBOAK

3.3.6 Entitatearen presidentetzak edo eskaeraren arduradunak sinaturiko eskabidea.

3.3.7. Transferentzia bidezko ordainketaren ziurtagiria, kontu korrontearen zenbakia adierazita (eta haren IBANa), bertara transferentzia egiteko.

Eginbidea: Egiten da adierazteko 6 orrialde dituzten Oinarri Arautzaile hauek Ultzamako Udalak onetsi zituela 2018ko maiatzaren 3an eginiko osoko bilkuran. 2

Alkate anderea
M^o. Aranzazu Martínez Urionabarrenechea

Idazkaria.
Alfonso Araujo Guardamino



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMA
UDALA.**

3.3.8. Laguntza zein proiekturako eskatzen den, haren programa zehatza eta aurrekontu xehatua:

Laguntza zein proiekturako eskatzen den, haren azalpen memoria, non adierazten baita proiektua garatzeko justifikazioa, helburuak, jarduerak, aurrekontua, eta non eta noiz egin behar den.

3.3.9. Entitatearen idazkaritzak eginiko ziurtagiria edo pertsona arduradunaren zinpeko aitortpena, non sartuko baita jarduera hori garatzeko beste entitate publiko nahiz pribatu batzuei eskatu dizkieten diru-laguntzen zerrenda. Era berean adierazi behar du eskaera aurkezten den egunean oraindik ebatzi gabe dauden diru-laguntza eskaerak dauden. Diru-laguntza ematean Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 16.-3 artikulua ezartzen dituen mugak aplikatuko dira beti.

3.3.10. Elkarte edo Patronatua baldin bada, estatutuen eta dagokion erregistro publikoko inskripzioaren kopia konpultsatua.

3.3.11. NAN edo IFKaren kopia konpultsatua

3.3.12. Tributuaren arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak beteak izatearen ziurtagiriak.

Deialdi honetako diru-laguntzen eskatzaileek Udalarekiko betebeharrak fiskalak beteak dituztela egiaztatuko du Ultzamako Udalak, ofizioz.

3.3.13. Eskatu edo jaso diren beste diru-laguntza publikoei buruzko zinpeko aitortpena. Baietzkoa izanez gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea ukatuko zaio, baldin eta deialdi honetan eskatzen den diru-laguntzaren xedeko proiektuaren beste gastu batzuei aurre egiteko erabiltzen ez bada behintzat, eta, hala bada, pertsona/entitate eskatzaileak demostratu beharko du horrela dela.

4. BALORAZIOA

4.1. Diru-laguntzak edo laguntzak emanen dira norgehiagokako araubidean, Balorazio Batzordeak proposatuta, honako hauek osatuko baitute:

- .- Ultzamako Udaleko Kultur Batzordeko kide diren talde politiko ezberdinen ordezkariak.
- .Utzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko animatzaile sozio-kulturala.
- .Utzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko kirol teknikaria.
- .Utzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko berdintasun teknikaria.
- .- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko euskara teknikaria.

4.2. Ebaluazio-batzordeak aurkeztutako eskaerak baloratuko ditu eta proposamena igorriko dio laguntzak emateko organo eskudunari.

Interesdunei haien eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazio-egintzak jakinaraziko zaizkie, Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 22. artikulua eta Herri

Eginbidea: Egiten da adierazteko 6 orrialde dituzten Oinarri Araztzaile hauek Ultzamako Udalak onetsi zituela 2018ko 3 maiatzaren 3an eginiko osoko bilkuran. 3

Alkate anderea
M^a. Aránzazu Martínez Urionabarrenechea

Idazkaria
Alfonso Araujo Guardamino



Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 30/1992 Legearen artikuluek ezarritakoarekin bat.

4.3. Batzordeak, balorazioa egiterakoan, kontuan hartuko ditu irizpide hauek:

Arte eta Kulturako sormenaren modalitatea (120 puntu arte):

Laguntza eskubidea lortzeko gutxieneko puntuazioa 50 puntukoa izanen da.

- .- Gazteek parte hartzen duten edo gazteendako diren proiektuak (18-30 urte): 20 puntu arte.
- .- Ultzaman erroldaturiko elkarte, entitate edo pertsonak aurkezturiko proiektuak: 30 puntu arte.
- .- Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen duten proiektuak: 20 puntu arte.
- .- **Genero ikuspegia** kontuan hartuz berdintasunerako aukera errealak sortzen duten proiektuak: 10 puntu arte.
- .- Ultzamako bailara (bertako jendea, paisaiak, herriak, ohiturak...) oinarritzat duten proiektuak: 10 puntu arte.
- .- Diziplina desberdinak nahasten dituzten proiektuak: bi diziplina, 5 puntu; hiru diziplina, 7 puntu; lau diziplina, 10 puntu.
- .- Kalitatea, interesa eta originaltasuna: 20 puntu arte.

Jarduera fisikoen modalitatea (90 puntu arte):

Laguntza eskubidea lortzeko gutxieneko puntuazioa 40 puntukoa izanen da.

- .- Ultzaman erroldaturiko elkarte, entitate edo pertsonak aurkezturiko proiektuak: 30 puntu arte.
- .- Gazteek parte hartzen duten edo gazteendako diren proiektuak (16-30 urte): 20 puntu arte.
- .- Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen duten proiektuak: 20 puntu arte.
- .- Nafarroako Gobernuaren akordio programatikoari jarraikiz, euskal kirola eta kultura, hala nola esku pilota eta herri kirolak, sustatzen dituzten proiektuak: 10 puntu arte.
- .- Genero ikuspegia kontuan hartuz berdintasunerako eta parte-hartze mistorako aukera errealak sortzen dituzten proiektuak: 10 puntu arte.

5. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA EMATEA.

Diru-laguntzak Ultzamako Udalaren Alkatetzaren ebazpen bidez emanen dira.

Pertsona edo entitate onuradun bakoitzarendako diru-laguntza kopurua gehienez **1.250,00 eurokoa izanen da sormen artistiko eta kulturalaren atalean eta 1.250,00 eurokoa jarduera fisikoen atalean.**

Diru-laguntzaren ordainez, pertsona edo talde eskatzaileak Ultzamako Bailaran aurkeztu beharko dute produktua. Horretarako, Udalarekin koordinatu beharko da. (Zentro Zibikoko dinamizazio-batzordea)


6. DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA

6.1. Diru-laguntzen zenbatekoa honela ordainduko da:

Eginbidea: Egiten da adierazteko 6 orrialde dituzten Oinarri Arautzaile hauek Ultzamako Udalak onetsi zituela 2018ko maiatzaren 3an eginiko osoko bilkuran.

Alkate anderoa
M^a Aránzazu Martínez Urionabarrenechea

4



Idazkaria
Alfonso Araujo Guardamino

4



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMA
UDALA**

6.1.1. Laguntza eskatu bada 1.a oinarrian ezarritako xederako: Bi epetan ordainduko da. %75, diru-laguntza ematen denean, eta gainontzeko %25, proiektua bukatu eta deialdiaren Proiektua Justifikatzea izenburuko 7. atalean aurreikusi den moduan justifikatu ondoren.

6.2. Ekitaldi ekonomiko zehatz baten kontura diru-laguntza bat jasotzeak ez dakar inolako eskubiderik hurrengo urteetan diru-laguntzak jasotzeko.

6.3. Diru-laguntza emanda, onartutzat joko da, espresuki uko egiten ez zaio. Bestela, ulertuko da onartu dela emandako zenbatekoa eta eskatzaileak konpromisoa hartuko du proiektatutako jarduera gauzatzeko.

7. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA.

Laguntza edo diru-laguntza jasotzen duten onuradunak behartuta daude ondoko dokumentazio hau aurkeztera Ultzamako Udal Erregistro Orokorrean, 2018ko abenduaren 15eko 14:30 baino lehen:

- Jardueraren txostena (dagokionean, jarduera deskribatuko da, parte-hartzaile kopurua, tokia, eguna eta ordua adierazita) eta balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak). Horiei nahitaez erantsiko zaizkie fakturen kopia konpultsatuak eta ordainagiriak.

- Deialdi honetako laguntzen bidez lagundutako gastu zehatzari dagozkion beste diru-laguntza publikoak eskatu/jaso izanari buruzko zinpeko aitortpen berri bat.

8. ONURADUNEN BESTE BETEBEHAR BATZUK.

Laguntza eskatu bada deialdi honetako 1.a oinarrian ezarritako xederako honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Diruz lagundutako jardueran gertatzen den edozein gorabeheraren berri ematea, hura gertatzen den unean bertan.

- Dokumentazioan eta inprimatutako propagandan Ultzamako Udalaren lankidetzaren berri ematea, Udalaren logotipoak ezarriz.


- Lana jendaurrean egin edo aurkezteko ekitaldia euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da.

Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak urratzeak laguntza deuseztatzea ekarriko du edo, dagokionean, justifikatu ez denari lotutako zatia proportzionala murriztea. Horrek ekartzen ahal du hasiera batean jasotako zenbatekoaren itzulketa edo diru-laguntzaren bigarren zatiaren murrizketa.

Diruz lagundu den gasturako beste diru-laguntza edo laguntzarik jaso bada beste entitate publiko batetik, gastu osorako edo zati baterako, bitan lagundutako diru-laguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da.

Eginbidea: Egiten da adierazteko 6 orrialde dituzten Oinarri Arautzaile hauek Ultzamako Udalak onetsi zituela 2018ko maiatzaren 3an eguniko osoko bilkuran.

Alkate anderea
M^a. Aránzazu Martínez Urionabarrenechea



Idazkaria
Alfonso Araujo Guardamino



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMA
UDALA.**

Horretarako, Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 9 eta 34. artikulua eta haiekin bat heldu direnak aplikatuko dira, onuradunen betebeharrei eta emandako diru-laguntzak itzultzeari buruzkoak baitira.

9. ERREKURTSOAK.


Oinarri hauen aurka eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka, errekurtsio hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- Berraztertzeo errekurtsioa, egintza administratiboa egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- Gora jotzeko errekurtsioa, egintza administratiboa egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Larraintzar, Ultzamako Bailara, 2018ko maiatzaren 3a.

Alkate anderea

M^a Aranzazu Martínez Urionabarrenechea



6

Eginbidea: Egiten da adierazteko 6 orrialde dituzten Oinarri Arautzaile hauek Ultzamako Udalak onetsi zituela 2018ko maiatzaren 3an eginiko osoko bilkuran.

Alkate anderea
M^a Aranzazu Martínez Urionabarrenechea

Idazkaria.
Alfonso Araujo Guardamino

